

## "Lehiakortasuna eta Finantziazioa. Hazkunderako aukerak" ihardunaldirako gonbidapena.

2016/11/04

MONDRAGON UNIBERTSITATEko MIK ikerketa zentrutik honako ihardunaldira gonbidatu nahi zaituztegu: "Lehiakortasuna eta finantziazioa. Hazkunderako aukerak" datorren azaroaren 24an arratsaldeko 15:00etan ospatuko dena, 2 orduko gutxi gora beherako luzapenarekin.

Ihardunaldi hau MIK eta Laboral Kutxaren artean sinatutako Kolaborazio Akordioaren barruan txertatuta dago eta gure programen bitartez erlazioa dugun enpresak baliatu daitezke honetaz.

Oraingo honetan, Laboral Kutxak bere finantziazio lerroak aurkeztuko ditu berrikuntza proiektuak garatzeko, baita beste proiektu mota batzuk finantziatzeko moduak ere. Bestalde MIKek Compyte tresna aurkeztuko du, eta berau enpresen eskura egongo da lehiakortasun eraldaketako beren proiektuak identifikatzeko.

Ihardunaldia Oñati edota Bilbon izango da (parte-hartzaileen preferentzien arabera). Irun-en beste ihardunaldi bat egiteko aukera ere izango da, beti ere interesa duten nahiko enpresa egon ezker.

Leku mugatuak daude, interesa duzuenok eman zuen izena link honetan (hemen). Ostiralak, hilak 18, ihardunaldia non ospatuko den jakinaraziko dugu (Oñati edota Bilbo).



MONDRAGON  
IKERKETA KUDEAKETAN  
INVESTIGACIÓN EN GESTIÓN  
INNOVATION & KNOWLEDGE